



Joan den uztailaren 11n, Jon Darpón Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuak, Gobernu zentralak duela urtebete indarrean jarritako 16/2012 Dekretu- Legearen ondorioz eragindako eragin larrienak zuzenduko zituen araua argitaratuko zuela iragarri zuen. Izan ere, dekretuaren ondorioz, Gizarte Segurantzaren onuradun ez direnak, egoera irregularrean dauden immigrante guztiak barne, osasun sistema publikotik at uzten baitzituen neurri horrek. Uztailaren 22ko EHAAn argitaratu den Uztailaren 3ko Aginduak ezartzen du, osasun arreta izateko, alde aurretik urtebetez erroldadaturik egotea ezinbesteko baldintza dela. SOS Arrazakeria baldintza berri horren aurrean oldartu egiten da: *"Osasunarena oinarrizko eskubidea da eta ezin da praktikan urtebetetik gorakoa izaten den errolda epe batek baldintzatua egon, ezin baititugu ahaztu etorkinek dituzten zailtasunak etxebizitza izan eta erroldatzeko"*

. Eusko Jaurlaritzari baldintza murriztaile hori bertan behera uztea eskatu diote.